


nola egingo dugu?

Mintzodromo hau egiteko seinaka eseriko gara mahaietan. 3 mintzagai izango ditugu eta mintzagai bakoitza 15 minutukoa izango da.

Saio bakoitzean mahaiz aldatuko gara, beste 5 berbakiderekin aritzeko.


Mahaiz aldatzeko ondoko argibideei jarraitu behar zaie.

1. Hau da mahaiz mahai ibiltzeko erabiliko duzun zenbaki klabea



2. Bigarren mintzagaia hasten denean zenbakiak esango dizu zenbat mahai aurreratu behar duzun.

Adibidez: nire zenbaki klabea 3 da. horrela mugituko naiz.



3. Hirugarren mintzagaia hasten denean berdin jokatu dugu.

helburua

Leioan euskararen erabilera indartu eta herriko euskaldunon elkar ezagutzeko asmoz, lehenengo MINTZODROMOA antolatu dugu Leioako berbalagunok.

Ekintza honen helburua hurrengoa da: euskaraz ikasten ari direnak nahiz euskalduntze prozesuan dabiltzanak euskaraz hitz egitera animatzea eta, bide batez, euskararen erabilerari bultzada ematea. Azken finean elkarrekin euskaraz egitea.

Mintzodromoan parte hartzeko eman izena Leioako euskaltegietan

94 464 60 63 Lamia AEK euskaltegia
94 464 00 02 Mastitxu Udal euskaltegia

www.leioaberba.blogspot.com
leioa_berba@aek.org
leioako berbalagunak



Sustatzaileak



Babesleak



MINTZODROMOA

Leioan

2014ko martxoaren 19an, asteazkena
Sakoneta kiroldegian
1. txanda: 10:00-11:30
2. txanda: 18:30-20:00

Gaur, euskara praktikatu
Bihar, euskaraz bizi!



1. mintzagaia

Txapela, fardela eta Visa

- > Bidaiatzeko mota asko daude, zein duzu gustukoen? Zein da bidaiaz gozatzeko modurik egokiena?
- > Krisi garaian, jendea oportetan joaten animatzen da? Zuk nola ikusten duzu?
- > Zein da zure ametsetako bidaiak? Zergatik? Nola antolatuko zenuke?

2. mintzagaia

Hondakinak zarama?

- > Zelan jokutzen duzu etxean? Birziklatzen duzu? Nola egiten duzu? Erraza iruditzen zaizu?
- > Uste duzu jendartea kontzientziatuta dagoela?
- > Ezagutzen duzu atez ateakoa? Zer deritzozu?
- > Zabortegeiak eta erraustegiak itxi behar dira? Nola konpondu ahal zenuke?

3. mintzagaia

Euskaraz bizi nahi dut!

- > Erabilera datuek diotenez, herriko euskaldunok gutxitan egiten dugu euskaraz, zeintzuk dira zure ustez arrazoiak?
- > Zer beharko genuke Leioan euskararen presentzia handitzeko?
- > Zer eskatuko zenioke udalari? Eta herriko taldeei?
- > Berbalagunetik zerbait egin daitekeela uste duzu? Zer proposatuko zenuke?

